Eskaintza ekonomikoa, nahiz formula bidez ebalua daitezkeen irizpideak Plegu honetako **2. ERANSKINEAN** atxikitzen den ereduaren araberakoak izango dira. Eskaintza ekonomikoa karaktere irakurgarritan edo makinaz idatzita aurkeztuko da. Hala, kanpoan geratuko dira ez-aipatzeak, erroreak edo Tokiko Erakundeak eskaintza aintzatesteko funtsezkotzat jotzen duena argiro ezagutzea eragozten duten zirriborroak dituztenak.	La oferta económica, así como los criterios evaluables mediante fórmulas se ajustarán al modelo que se adjunta como **ANEXO 2** de este Pliego. La oferta económica se presentará en caracteres claros o escrita a máquina, de modo que serán excluidas aquéllas que tengan omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer, claramente, lo que la Entidad Local estime fundamental para considerar la oferta.
3.- *Erreferentzia teknikoak* Baldintza Teknikoen Pleguarekin bat etorriz, beste dokumentu batzuk gaineratu behar direnean proposamenak eskatutako zehaztapen teknikoak betetzen dituela egiaztatze aldera, baina horiek balioestekoak ez direnean, hura **A** gutun-azalean edo artxibo elektronikoan gaineratuko da.	**3.- *Referencias técnicas*** Cuando conforme al pliego de prescripciones técnicas deban incluirse otros documentos en orden a permitir verificar que la proposición cumple con las especificaciones técnicas requeridas, pero que no sean objeto de valoración, ésta se incluirá en el sobre o archivo electrónico A.
14. klausula. Kontratazio-mahaia Kontratazio-mahaia legez osatuta dagoela kontsideratuko da Lehendakaria, Idazkaria eta kontratazio organoari aholkularitza juridikoa eskaintzeko zeregina duen funtzionario bat nahiz aurrekontua kontrolatzeko zeregina duen funtzionarioa daudenean. Mahaiaren osaera kontratatzailearen profilean argitaratuko da.	**Cláusula 14.- Mesa de Contratación** La Mesa de contratación se considerará válidamente constituida si lo está por el Presidente, el Secretario, un funcionario de entre quienes tengan atribuido legal o reglamentariamente el asesoramiento jurídico del órgano de contratación y un funcionario que tenga atribuidas las funciones relativas a su control económico-presupuestario. La composición de la Mesa se publicará en el perfil de contratante.
15. klausula – Proposamen, esleipen-proposamen eta publizitatearen azterketa	**Cláusula 15.- Examen de las proposiciones, propuesta de adjudicación y publicidad**

2017ko SPKL Legearen 159.4. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, proposamena barneratzen duten gutun-azalak dagokion hurrenkerak irekiko dira 2017ko SPKL Legearen 145. artikuluan ezarritakoaren arabera, plegu honetan ezarritako esleipen-irizpideak balioesteko aplikagarri den metodoa kontuan hartuz. Kontratazio mahai izango da irekitzeaz arduratuko dena. Irizpide zenbakarrien bidez ebaluatzeko eskaintzaren zatia barneratzen duten gutun-azalak irekitzeko ekitaldia publiko egingo da pleguetan ezarritako formulak aplikatze hutsarekin. Horretarako, pleguaren **2. Eranskin** modura agertzen den eskaintza-ereduan alderdi horiek barneratzen dira.	De acuerdo con lo previsto en el artículo 159.4 de la LCSP 2017 la apertura de los sobres conteniendo la proposición se hará por el orden que proceda de conformidad con lo establecido en el artículo 145 de la LCSP 2017 en función del método aplicable para valorar los criterios de adjudicación establecidos en los pliegos. La apertura se hará por la Mesa de Contratación. Será público el acto de apertura de los sobres que contengan la parte de la oferta evaluable a través de criterios cuantificables mediante la mera aplicación de fórmulas establecidas en los pliegos. A tal efecto, en el modelo de oferta que figura como **Anexo 2** al pliego se contienen estos extremos.
Ekitaldi publiko horren ostean, saio berean, mahaiak urrats hauek jarraituko ditu: • **1.** Hala badagokio, pleguko betekizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu ondoren, eskaintzak ebaluatu eta sailkatzea. • **2.** Esleipen-proposamena egitea puntuazio onena lortzen duen hautagaiaren alde. • **3.** Puntuazio onena lortu duen enpresari eskatzea enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamena sinatzen duenak eskaintza egiteko behar besteko ahala duela, eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo, hala badagokio, dagokion sailkapena duela, eta kontratatzeko inolako debekurik ez duela egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu ditzala. • **4.** Puntuazio onena lortu duen enpresari, jakinarazpen elektroniko bidez, behin betiko bermea era dezala eskatzea,	Tras dicho acto público, en la misma sesión, la mesa procederá a: • **1.** Previa exclusión, en su caso, de las ofertas que no cumplan los requerimientos del pliego, evaluar y clasificar las ofertas. • **2.** Realizar la propuesta de adjudicación a favor del candidato con mejor puntuación. • **3.** Requerir a la empresa que ha obtenido la mejor puntuación, la aportación de los documentos que acrediten que la empresa está debidamente constituida, el firmante de la proposición tiene poder bastante para formular la oferta, ostenta la solvencia económica, financiera y técnica o, en su caso la clasificación correspondiente y no está incursa en ninguna prohibición para contratar. • **4.** Requerir a la empresa que ha obtenido la mejor puntuación mediante

nahiz beste erakunde batzuen gaitasunak baliatu nahi dituenean, erakunde horien idatzizko konpromisoa helaraz dezala, beharrezko baliabideak izango dituela adieraztekoa, hori guztiori 7 egun balioduneko epean, jakinarazpena igortzen denetik zenbatzen hasita.	comunicación electrónica para que constituya la garantía definitiva, así como para que aporte cuando desee recurrir a las capacidades de otras entidades, compromiso por escrito de dichas entidades de que va a disponer de los recursos necesarios todo ello en el plazo de 7 días hábiles a contar desde el envío de la comunicación.
2017ko SPKL Legearen hamabosgarren Xedapen Gehigarriarekin bat etorriz, jakinarazpenak helbide elektroniko gaitu bidez edo agerraldi elektroniko bidez egin ahalko dira. Jakinarazpenetik zenbatzeko epeak hura edo, agerraldi elektroniko bidez balitz, jakinarazpenaren abisua, igortzen den egunetik hasiko dira zenbatzen, betiere, jakinarazpenaren xede den egintza kontratazio organoaren kontratatzailearen Profilean egun berean argitaratu bada. Bestela, epeak interesdunak jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera zenbatuko dira.	De conformidad con la Disposición adicional decimoquinta de la LCSP 2017, las notificaciones se podrán realizar mediante dirección electrónica habilitada o mediante comparecencia electrónica. Los plazos a contar desde la notificación se computarán desde la fecha de envío de la misma o del aviso de notificación, si fuera mediante comparecencia electrónica, siempre que el acto objeto de notificación se haya publicado el mismo día en el Perfil de contratante del órgano de contratación. En caso contrario los plazos se computarán desde la recepción de la notificación por el interesado.
Jakinarazpen elektronikoa ukatutzat emateko epea, 39/2015 Legearen 41.5 artikuluan aurreikusitako ondorioekin, hamar egun naturalekoa izango da hura interesdunak jaso duela jakiten denetik hartako edukira iritsi gabe, baldin eta ofizioz edo hartzaileak eskatuta sarbidea teknikoki edo materialki ezinezkoa dela egiaztatzen ez bada.	El plazo para considerar rechazada la notificación electrónica, con los efectos previstos en el artículo 41.5 de la Ley 39/2015, será de diez días naturales computados desde que se tenga constancia de su puesta a disposición del interesado sin que se acceda a su contenido, salvo que de oficio o a instancia del destinatario se compruebe la imposibilidad técnica o material del acceso.

16. klausula. Kontratua esleitu aurretik dokumentazioa aurkeztea	**Cláusula 16.- Presentación de documentación con carácter previo a la adjudicación**
2017ko SPKL Legearen 159.4.f)4. artikuluarekin bat etorriz, mahaiak puntuazio onena lortu duen enpresari, jakinarazpen elektroniko bidez, behin betiko bermea era dezala eskatuko dio, nahiz beste erakunde batzuen gaitasunak baliatu nahi dituenean, erakunde horien idatzizko konpromisoa helaraz dezala, beharrezko baliabideak eta 2017ko SPKL Legearen 76.2. artikuluaren arabera kontratua egikaritzera bideratu edo atxikitzea konpromisoa hartutako bitartekoak egiaz dauzkala egiaztatzeko dokumentuak izango dituela adieraztekoa, hori guztiori **7 egun balioduneko** epean, jakinarazpena igortzen denetik zenbatzen hasita	De acuerdo con el artículo 159.4.f).4.º de la LCSP 2017 la Mesa requerirá a la empresa que haya obtenido la mejor puntuación mediante comunicación electrónica para que constituya la garantía definitiva, así como cuando el licitador desee recurrir a las capacidades de otras entidades, compromiso por escrito de dichas entidades de que va a disponer de los recursos necesarios y la documentación justificativa de que dispone efectivamente de los medios que se hubiese comprometido a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato conforme al artículo 76.2 de la LCSP 2017 y todo ello en el plazo de **7 días hábiles** a contar desde el envío de la comunicación.
Proposatutako esleipendunak behin betiko bermea ez badu aipaturiko epean aurkezten, hurrengo lizitatzailearen (eskaintzan sailkatutako ordenan) egingo da esleipen proposamena, epea emanez aipatutako behin betiko bermea aurkezteko.	En caso de que en el plazo otorgado al efecto el candidato propuesto como adjudicatario no presente la garantía definitiva, se efectuará propuesta de adjudicación a favor del siguiente candidato en puntuación, otorgándole el correspondiente plazo para constituir la citada garantía definitiva.
Lizitazioan Europar Batasuneko Estatu kide bateko atzerriko enpresariak edo Europako Esparru Ekonomikoko sinatzaile bat aurkeztuko balira, gaitasuna, kaudimena eta debekurik eza hala Estatu kide bateko operadore ekonomiko baimenduen dagokion zerrenda ofizialean kontsultatuz, nola aipatu alderdiak egiaztatzeko dokumentazioa helaraziz egiaztatu ahal izango da. Azken kasu horretan, behin betiko bermea aurkezteko emandako	En los casos en que a la licitación se presenten empresarios extranjeros de un Estado miembro de la Unión Europea o signatario del Espacio Económico Europeo, la acreditación de su capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones se podrá realizar bien mediante consulta en la correspondiente lista oficial de operadores económicos autorizados de un Estado miembro, bien mediante la aportación de la documentación acreditativa de los citados extremos, que deberá presentar, en este

epearen barnean aurkeztu beharko da aipatu dokumentazioa.	último caso, en el plazo concedido para la presentación de la garantía definitiva.
17. klausula. Behin betiko bermea	**Cláusula 17.- Garantía definitiva**
Ekonomia aldetik eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileak eskainitako azken prezioaren 100eko 5eko bermea eratu beharko du (BEZ gabe).	El licitador que presente la oferta económicamente más ventajosa deberá constituir a disposición del órgano de contratación una garantía de un 5 por 100 del precio final ofertado por aquéllos, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido.
Behin betiko bermea 2017ko SPKLko 108. artikuluan zehaztutako moduren batean eratu behar da.	La garantía definitiva podrá prestarse en alguna o algunas de las formas previstas en el artículo 108 de la LCSP 2017.
Behin betiko bermea eratu dela bitarteko elektronikoen bitartez ziurta daiteke.	La acreditación de la constitución de la garantía definitiva podrá hacerse mediante medios electrónicos.
Ekonomia aldetik eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileak kontratua esleitu aurreko dokumentazioa aurkezteko jarritako epea baino lehen egiaztatu behar du behin betiko bermea eratu duela.	La acreditación de la constitución de la garantía definitiva por el licitador que hubiera presentado la oferta económicamente más ventajosa deberá acreditar en el plazo conferido para la presentación de la documentación previa a la adjudicación.
Kontratistari eskatutako zigor eta kalte-ordainak behin betiko bermeari egozten zaizkionean, kontratistak bermea berritu edo handitu behar du, dagokion zenbatekoarekin, egotzi eta **hamabost eguneko** epean; bestela, kontratua iraungiko da.	Cuando se hagan efectivas sobre la garantía definitiva las penalidades o indemnizaciones exigibles al contratista, este deberá reponer o ampliar aquélla, en la cuantía que corresponda, en el plazo de **quince días** desde la ejecución, incurriendo en caso contrario en causa de resolución.
Kontratua aldatu eta prezioa ere aldatzen bada, bermea doitu egin behar da, prezio berriaren araberakoa izan dadin; hori, **hamabost eguneko** epean, enpresaburuari kontratua aldatzeko akordioaren berri emandako egunetik kontatzen hasita.	Cuando, como consecuencia de una modificación del contrato, experimente variación el precio del mismo, deberá reajustarse la garantía, para que guarde la debida proporción con el nuevo precio modificado, en el plazo de **quince**

	días contados desde la fecha en que se notifique al empresario el acuerdo de modificación.
Alde horretatik, ez dira prezio-aldaketatzat hartuko kontratuko prezioak berrikusi ondoren onartzen direnak.	A estos efectos no se considerarán las variaciones de precio que se produzcan como consecuencia de la aprobación de la revisión de precios del contrato.
Behin betiko bermea 2017ko SPKLko 110. artikuluan jasotako kontzeptuetarako izango da.	La garantía definitiva responderá de los conceptos a los que se refiere el artículo 110 de la LCSP 2017.
18. klausula – Esleipena eta jakinarazpena	**Cláusula 18.- Adjudicación y notificación**
2017ko SPKL Legearen 159.4.f) artikuluarekin bat etorriz, behin betiko bermea aurkeztu ostean, eta derrigorrezkoa den kasuetan, gastuaren konpromisoa Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitako moduan Kontu-hartzailetzak fiskalizatu ondoren, **beranduenez 5 eguneko** epean kontratua esleipendun modura proposatutako lizitatzailearen alde esleituko da, eta behin hura esleituta, formalizatu egingo da.	De acuerdo con el artículo 159.4.f) de la LCSP 2017 presentada la garantía definitiva y, en los casos en que resulte preceptiva, previa fiscalización del compromiso del gasto por la Intervención en los términos previstos en el Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales en un plazo **no superior a 5 días**, se procederá a adjudicar el contrato a favor del licitador propuesto como adjudicatario, procediéndose, una vez adjudicado el mismo, a su formalización.
Esleipenaren ebazpen arrazoitua lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da **15 eguneko** epean.	La resolución motivada de adjudicación se notificará a los licitadores, debiendo ser publicada en el perfil de contratante en el plazo de **15 días**.
Jakinarazpenean eta publizitatean interesdunek esleipenaren erabakiaren	La notificación y la publicidad deberán contener la información necesaria que permita a los interesados en el

aurka esleipen-prozeduran behar bezala argudiatutako errekurtsoa ipintzea ahalbidetzeko beharrezkoa den informazioa barneratu beharko da, eta bertan, edozein kasutan, honakoa jaso beharko da. • -Esleipen-prozeduratik kanporatutako lizitatzaileei dagokienez, eskaintza ez onartzearen arrazoiak, baliokidetasun eza erabakitzearen edo zerbitzuak errendimenduko betekizunekin edo eskakizun funtzionalekin bat ez datozela erabakitzearen arrazoiak; eta lizitatzaile ezberdinei emandako balioespenen banakapena, esleipendunarena barne. • -Edozein kasutan, esleipendunaren izena, onartutako eskaintzen gainerako lizitatzaileek aurkeztu dituztenekiko lehenetsitako eskaintza baldintzatu duten esleipendunaren proposameneko ezaugarri eta abantailak. Jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez egingo da 2017ko SPKL Legearen hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.	procedimiento de adjudicación interponer recurso suficientemente fundado contra la decisión de adjudicación, y entre ella en todo caso deberá figurar la siguiente: • - Con respecto a los licitadores excluidos del procedimiento de adjudicación, los motivos por los que no se haya admitido su oferta, los motivos de la decisión de no equivalencia o de la decisión de que los servicios no se ajustan a los requisitos de rendimiento o a las exigencias funcionales; y un desglose de las valoraciones asignadas a los distintos licitadores, incluyendo al adjudicatario. • - En todo caso, el nombre del adjudicatario, las características y ventajas de la proposición del adjudicatario determinantes de que haya sido seleccionada la oferta de este con preferencia respecto de las que hayan presentado los restantes licitadores cuyas ofertas hayan sido admitidas. La notificación se realizará por medios electrónicos de conformidad con lo establecido en la disposición adicional decimoquinta de la LCSP 2017.
19. klausula. Prozeduran ordeztea Prozedura izapidetzerakoan eta kontratua formalizatu aurretik enpresak beste batekin bat egiten badu, zatitzen bada edo enpresa-ondarea edo jardueraren adar bat eskualdatzen badu, enpresa lizitatzaileak edo hautagaiak prozeduran duen tokia sozietate xurgatzaileak, bat egitetik sortzen denak, zatiketaren onuradunak edo enpresa-ondarea edo jarduera-adarra eskuratu duenak hartuko du. Hori, betiere, ahalmen-baldintzak betetzen baditu eta ez	**Cláusula 19.- Sucesión en el procedimiento** Si durante la tramitación del procedimiento y antes de la formalización del contrato se produce una operación de fusión, escisión, transmisión del patrimonio empresarial o de una rama de la actividad, le sucederá a la empresa licitadora o candidata en su posición en el procedimiento la sociedad absorbente, la resultante de la fusión, la beneficiaria de la escisión o la adquirente

badu kontratatzeko debekurik, eta kaudimena eta sailkapena egiaztatzen baditu, administrazio-baldintza partikularren agiri honetan esleipen-prozeduran parte hartu ahal izateko ezarritako baldintzen arabera.	del patrimonio empresarial o de la correspondiente rama de actividad, siempre que reúna las condiciones de capacidad y ausencia de prohibición de contratar y acredite su solvencia y clasificación en las condiciones exigidas en este pliego de cláusulas administrativas particulares para poder participar en el procedimiento de adjudicación.
20. klausula - Kontratua formalizatzea **Formalizatzea** Behin kontratua esleituta, bermea aurkezten denetik beranduenez 5 eguneko epean, eta derrigorrezkoa den kasuetan, gastua aldez aurretik fiskalizatu ondoren, kontratua formalizatu egingo da. Kontratua administrazio-dokumentu bidez formalizatu beharko da. Dokumentu hori lizitazioaren baldintzan araberakoa izan beharko da zehaztasun osoz eta nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikora sartu ahal izateko. Haatik, kontratistak kontratua eskritura publikora eramatea eskatu ahalko du, beregain izango direlarik dagozkion gastuak. Kontratua formalizatzeko dokumentuan ezingo dira, inolaz ere, esleipenaren baldintzak aldatzea dakarten klausulak barneratu. Kontratua esleipena lizitatzaileei eta hautagaiei jakinarazi eta **beranduenez hamabost egun** baliodunean formalizatu beharko da.Kasu horretan, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraituz hurrengo lizitatzailearen alde esleituko da, aldez aurretik aurreikusitako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa adierazitako epeen barruan aurkeztu ondoren.	**Cláusula 20.- Formalización del contrato** **Formalización** Una vez adjudicado el contrato en el plazo máximo de 5 días desde que se presente la garantía y, en los casos en que resulte preceptiva, se fiscalizase previamente el gasto, se formalizará el contrato. El contrato deberá formalizarse en documento administrativo que se ajustará con exactitud a las condiciones de la licitación, constituyendo dicho documento título suficiente para acceder a cualquier registro público. No obstante, el contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos. En ningún caso se podrán incluir en el documento en que se formalice el contrato cláusulas que impliquen alteración de los términos de la adjudicación. La formalización del contrato deberá efectuarse **no más tarde de los quince días** hábiles siguientes a aquel en que se realice la notificación de la adjudicación a los licitadores y candidatos. En tal caso, el contrato se adjudicará al siguiente licitador por el orden en que hubieran quedado clasificadas las ofertas,

Ez formalizatzearen arrazoiak Administrazioari egotzi ahal bazaizkio, kontratistari kalte-ordaina ordainduko zaio atzerapenaren ondorioz sorrarazitako kalte eta galerengatik. Kontratua formalizatu aurretik ezingo da hura egikaritu.	previa presentación de la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos, en los plazos antes señalados. Si las causas de la no formalización fueren imputables a la Administración, se indemnizará al contratista de los daños y perjuicios que la demora le pudiera ocasionar. No podrá procederse a la ejecución del contrato con carácter previo a su formalización.
Formalizazioaren iragarpena Kontratuaren formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, kontratazio organoaren Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da, beranduenez kontratua perfekzionatu eta **hamabost eguneko** epean. Formalizazioaren iragarkian 2017ko SPKL Legearen III. Eranskinean jasotako informazioa barneratuko da. Kontratuarekin lotutako zenbait datu ez argitaratzea erabaki daiteke, baldin eta, espedientean behar bezala justifikatu ostean, informazio hori hedatzeak arau bat aplikatzea eragotz dezakeela, interes publikoaren aurkakoa izan daitekeela edo enpresa publiko edo pribatuen legezko interes komertzialak edo haien arteko konpetentzia leiala kalte dezakeela uste bada, edo sekretupeko edo isilpeko kontratutzat hartzen direnean edo hura gauzatu ahal izateko indarreko legeriaren arabera segurtasun-baldintza bereziak beharrezkoak direnean, edo Estatuko segurtasunaren funtsezko interesen babesak hala eskatzen duenean eta hala deklaratu izan denean 2017ko SPKL Legearen 19. artikuluaren 2. ataleko c) idatz-zatian aurreikusitakoarekin bat etorriz.	**Anuncio de formalización** La formalización del contrato junto con el correspondiente contrato se publicará en el Perfil del Contratante del órgano de contratación en un plazo no superior a **quince días** tras el perfeccionamiento del contrato. El anuncio de formalización contendrá la información recogida en el Anexo III de la LCSP 2017. Podrán no publicarse determinados datos relativos a la celebración del contrato cuando se considere, justificándose debidamente en el expediente, que la divulgación de esa información puede obstaculizar la aplicación de una norma, resultar contraria al interés público o perjudicar intereses comerciales legítimos de empresas públicas o privadas o la competencia leal entre ellas, o cuando se trate de contratos declarados secretos o reservados o cuya ejecución deba ir acompañada de medidas de seguridad especiales conforme a la legislación vigente, o cuando lo exija la protección de los intereses esenciales de la seguridad del Estado y así se haya declarado de conformidad con lo previsto en la letra c)

Kasu horretan, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aipatzen den Gardentasun eta Gobernu Onaren Batzordeak egindako txostenaren igorpena jaso beharko da, 2017ko SPKL Legearen 154. artikuluan adierazitako moduan.	del apartado 2 del artículo 19 de la LCSP 2017. En tal caso deberá recabarse la emisión de informe por el Consejo de Transparencia y Buen Gobierno a que se refiere la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno en los términos del artículo 154 de la LCSP 2017.
KONTRATUA GAUZATZEA **21. klausula - Kontratuko prezioak ordaintzea** Prezioaren ordainketa, **Kontratuko Ezaugarrien Koadroko 18. atalean** adierazitako moduan egingo da. 2017ko SPKL Legearen hogeita hamabigarren Xedapen gehigarrian adierazitakoarekin bat etorriz, kontratistak faktura aurkeztu beharko du derrigorrez dagokion administrazio-erregistroaren aurrean, hura administrazio-organoari edo hura izapidetzea dagokion unitateari kontabilitate publiko arloko konpetentziak dituen administrazio-organoaren identifikazioa, kontratazio-organoaren eta hartzailearen identifikazioa (dagokion fakturan agertu beharko direnak) jasotzen dituen **Kontratuko Ezaugarrien Koadroko 18. atalean** adierazitako baldintzetan adierazitako moduan. Sektore Publikoan Faktura Elektronikoa bultzatu eta Fakturen Kontularitzako Erregistroa sortzeko Abenduaren 27ko 25/2013 Legean ezarritako kasuetan formatu elektronikoan aurkeztu beharko dira. Kasu horietan faktura Sarbide Puntu Orokorrean aurkezteak administrazio-	**EJECUCIÓN DEL CONTRATO** **Cláusula 21.- Pago del precio del contrato** El pago del precio, se realizará de la manera señalada en el **apartado 18 del Cuadro de Características del Contrato**. De acuerdo con lo señalado en la Disposición adicional trigésima segunda de la LCSP 2017 el contratista tendrá la obligación de presentar la factura ante el correspondiente registro administrativo a efectos de su remisión al órgano administrativo o unidad a quien corresponda la tramitación de la misma en los términos señalados en el **apartado 18 del Cuadro de Características del Contrato** que recoge la identificación del órgano administrativo con competencias en materia de contabilidad pública, la identificación del órgano de contratación y del destinatario, que deberán constar en la factura correspondiente. En los supuestos fijados en la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de Impulso a la Factura Electrónica y Creación del Registro Contable de Facturas del Sector Público deberá presentarse en formato electrónico. En tales supuestos la presentación de la factura en el Punto General de Acceso

erregistro batean aurkeztearen balio bera izango du. Ordainketaren atzerapena lau hilabetetik gorakoa izango balitz, kontratistak aukera izango du, hala badagokio, kontratuaren betetzea bertan behera uzteko. Hori Administrazioari jakinarazi beharko dio hilabete lehenago, bertan behera uzte horretatik erator daitezkeen eskubideak aitortze aldera, Legean ezarritako moduan. Administrazioa sei hilabetetik gora atzeratuko balitz, kontratistak, era berean, kontratua eteteko eta horren ondorioz sortzen diren kalteen ordaina jasotzeko eskubidea izango du.	equivale a la presentación en un registro administrativo. Si la demora en el pago fuese superior a cuatro meses, el contratista podrá proceder, en su caso, a la suspensión del cumplimiento del contrato, debiendo comunicar a la Administración, con un mes de antelación, tal circunstancia, a efectos del reconocimiento de los derechos que puedan derivarse de dicha suspensión, en los términos establecidos en esta Ley. Si la demora de la Administración fuese superior a seis meses, el contratista tendrá derecho, asimismo, a resolver el contrato y al resarcimiento de los perjuicios que como consecuencia de ello se le originen.
22. klausula. Prezioak berrikustea Kontratu honetan ez da prezioak berrikustea aurreikusten.	**Cláusula 22.- Revisión de precios** En el presente contrato, no se prevé revisión de precios.
23. klausula. Betekizunak: zerga-sistema, generoarekiko berdintasuna, ingurumena babestea, enplegua, lan-baldintzak eta desgaitasunak dituen pertsona-portzentaje jakin bat kontratatzea Kontratistak lanaren, gizarte-segurantzaren, desgaitasunak dituzten pertsonen gizarteratzearen eta laneko arriskuen prebentzioaren gainean indarrean dagoen araudia bete behar du nahitaez; hori, laneko arriskuak prebenitzeko azaroaren 8ko 31/1995 Legean eta hura arautzeko eta garatzeko arauetan ezarritakoaren arabera. Agiri honetako 2. eranskinean jasotako proposamen ekonomikoaren ereduan berariaz adierazi behar da eskaintzan	**Cláusula 23.- Obligaciones relativas a la fiscalidad, protección del medio ambiente, empleo y condiciones laborales y de contratar a un porcentaje específico de personas con discapacidad** El contratista está obligado al cumplimiento de la normativa vigente en materia laboral, de seguridad social, de integración social de minusválidos y de prevención de riesgos laborales, conforme a lo dispuesto en la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, sobre Prevención de Riesgos Laborales, y sus normas reglamentarias y de desarrollo. En el modelo de proposición económica que figura como **Anexo 2** al presente pliego se hará manifestación expresa que

kontuan hartu direla, batetik, zerga-sistemaren, ingurumenaren babesaren, enpleguaren babesaren, genero-berdintasunaren, lan-baldintzen, laneko arriskuen prebentzioaren eta desgaitasunak dituzten pertsonen gizarteratzearen eta laneratzearen gainean indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betekizunak; eta bestetik, desgaitasunak dituen pertsona-kopuru edo -portzentaje jakin bat kontratatzeko betebeharra. Horrek ez du esan nahi 2017ko SPKLko 149. artikuluan ezarritakoa aplikatu behar ez denik; artikulu hori normalak ez diren edo neurrigabeak diren balioak dituzten eskaintzak egiaztatzeari buruzkoa da.	se han tenido en cuenta en sus ofertas las obligaciones derivadas de las disposiciones vigentes en materia de fiscalidad, protección del medio ambiente, protección del empleo, igualdad de género, condiciones de trabajo, prevención de riesgos laborales e inserción socio laboral de las personas con discapacidad, y a la obligación de contratar a un número o porcentaje especifico de personas con discapacidad, y protección del medio ambiente, sin perjuicio de la aplicación de lo dispuesto en el artículo 149 de la LCSP 2017sobre verificación de las ofertas que incluyan valores anormales o desproporcionados.
24. klausula – Egikaritzearen baldintza bereziak Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak finkatzen dira, hala badagokio **Kontratuaren Ezaugarrien Koadroko 16. atalean** agertzen direnak. Horiek betetzen ez badira zehapenak ezarriko dira, atal horretan berariaz zehazten direnak izan ezik, zeintzuei oinarrizko kontratuzko betebehar izaera ematen baitzaie kontratua eteteko kausa modura hartzearen ondorioetarako, betebehar nagusitzat hartzeagatik 2017ko SPKL Legearen 71. artikuluaren f) idatz-zatian, eta arau-hauste larri gisa tipifikatzen direnak 2017ko SPKL Legearen 71. artikuluaren 2. ataleko c) idatz-zatian ezarritako ondorioetarako.	**Cláusula 24.- Condiciones especiales de ejecución** Se establecen las condiciones especiales de ejecución del contrato, que en su caso figuran en el **apartado 16 del Cuadro de Características del Contrato**, el incumplimiento de las cuales dará lugar a la imposición de penalidades, salvo las que se determinen expresamente en tal apartado a las que se les confiere el carácter de obligaciones contractuales esenciales a los efectos de su consideración como causa de resolución del contrato por tener carácter de obligación principal letra f) del artículo 211 de la LCSP 2017 y las que se tipifiquen como infracción grave a los efectos establecidos en la letra c) del apartado 2 del artículo 71 de la LCSP 2017.
25. klausula. Kontratistarentzako zigorrak, kontratua ez betetzeagatik Kontratatutako enpresak ez badu betetzen, hari egozteko moduko arrazoiengatik, agiri honetako 23. eta 24. artikuluan jasotako baldintzak nahiz prestazioen egikaritze	**Cláusula 25.- Penalidades a la empresa contratista por incumplimiento** Cuando la empresa contratada, por causas imputables a la misma, hubiere incumplido las condiciones señaladas en las cláusulas 23 y 24 de este pliego, la Administración

partziala, administrazioak erabaki dezake kontratua iraungitzea (hori erabakiz gero kontratistak bermea galduko du) edo zigorra jartzea, gehienez kontratuaren prezioaren % 10ekoa, aipatutako hiru kasu bakoitzeko.	podrá optar, indistintamente, por su resolución, con pérdida de la garantía, o por la imposición de una penalidad, en cada uno de los tres supuestos señalados, no superior al 10% del precio del contrato.
